# EUSKO IKASKUNTZAK AINGERU IRIGARAYRI OMENALDIA

# HOMENAJE DE EUSKO IKASKUNTZA A AINGERU IRIGARAY

Urte asko dira Aingeru Irigaray Drea. ezagutu nuena. Garaia eta mehea, kulturgizona, adeitsua eta urguria, euskaltzalea, kritikoa eta liberala, adiskideen adiskide, eta hezkibel eta amoregaitzen etsai bere «Euskalerria»-ren gauza guztietan. Baina 1978az gero ezagutu sakonkien Aingeru Irigaray Drea., Euskal Herriko Foru Diputazioek Eusko Ikaskuntza birrantolatu zutenetik.

Aingeru Irigaray, Eusko Ikaskuntzaren bultzatzaile nagusietakoa izan da bigarren etapa honetan. Agustin Zumalabe Idazkari Nagusiarekin zuen adiskidetasunak, ia egunero honen solaskide izatera eraman zuen, eta nerekin ere ohitura horri eutsi zion gaisotu zen artean. Aingeru Irigarayk egunero-egunero dedikazio eta suhartasun osoz, izpiritu kritiko jatorrez bizi zuen Eusko Ikaskuntzaren birrantolakuntza, bere fondo eta kuadro intelektualen birreskuratzea, gai, zientzia eta teknologia berriak guereganatzea. Dena interesgarri zitzaion, medikuntza, artea, literatura, baina batipat linguistikazalea zen. «Lingua Navarrorum-a «ren azterketa diakroniko zehatzak bere une eta zaletasunik onenak eta egin zituen 7 liburuen zati garratzitsuenak bete zizkion. Euskarak Nafarroan jasaten zuen atzerapenak atsekabez eta saminduraz jo ordez, hamabostero haren alde «Diario de Navarra» egunkarian eta hainbat aldizkari zientifikotan lanegitera bultzazu zuen, besteak beste

R.I.E.V., Eusko Folklore, Gure Herria, Yakintza, Euskera, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen Buletina, Egan, Príncipes de Viana, Fontes Linguae Vasconum, Cuadernos de Etnologia y etnografia de Navarra, Munibe eta La Gran Enciclopedia Vasca izenekoetan aritu zelarik.

Bai bere bibliografia luze eta zabala bai bere biografia, José Angel bere semeak jaso ditu maitasunez eta ardura haundiz omenaldi honetarako. Herri honetako zenbait gai eta autore nafar honen obra hobeto ezagutzeko ekarpen haundia delakoan gaude.

Aingeru Irigarai Jn.aren omenezko liburu honetarako Eusko Ikaskuntzak egin duen dei hertsiari hogeitahiru ikerlek erantzun dio. Ikerle hauek, omenduaren giza-alderdi, oroitzapen eta bizipenen arloan eta Linguistika, Soziolinguistika, Toponimia eta Onomastika, Literatura, Historia eta Etnografian lankidetza zientifiko garrantzitsuak ezezik Nafarroarekin zerikusirik duten beren lan gehienak ere eskaini dizkigute. Gure eskerronik beroena hauei.

Aingeru Irigarai Irigarai Jn.ari eta beronen familiari eskaini nahi diogun eskerrona eta omenaldia, ikerketa eta Herriarenganako zaletasunaren eredua izan baita.

Eusko Ikaskuntzaren izenean, mila esker Aingeru!

Conocí hace años al Dr. Aingeru Irigaray. Alto y espigado, hombre culto, atento y delicado, amante de lo vasco, crítico y liberal, amigo de sus amigos y enemigo de los cerriles e intransigentes para todo lo que fuera su «Vasconia». Pero cuando más he conocido al Dr. Aingeru Irigaray ha sido a raíz del año 1978, con motivo de la reorganización de la Sociedad de Estudios Vascos por parte de las Diputaciones Forales del País Vasco.

Aingeru Irigaray ha sido uno de los principales motores de esta segunda etapa de la Sociedad. Su amistad con Agustín Zumalabe, secretario general, le hacía contertulio casi diario, costumbre que mantuvo hasta el momento de su enfermedad también conmigo. Aingeru Irigaray vivía día a día, con entrega y apasionamiento, con espíritu crítico-constructivo, la reorganización de la Sociedad, la recuperación de sus fondos y sus cuadros intelectuales, la reincorporación de nuevas materias, ciencias y tecnologías. Le interesaba todo: la medicina, el arte, la literatura, pero era un enamorado sobre todo de la «Lingüística». El estudio minucioso de carácter diacrónico de la «Lingua Navarrorum» ocupó sus mejores momentos y aficiones y gran parte de sus siete libros. El retroceso del euskara en Nafarroa, lejos de llenarle de dolor y amargura, le llevó a trabajar quincenalmente en favor del mismo en el «Diario de Navarra» y a colaborar en múltiples revistas de carácter científico: Revista Internacional de Estudios Vascos, Eusko Folklore, Gure Herria, Yakintza, Euskera, Boletín de la Sociedad Bascongada de Amigos del País, Egan Príncipe de Viana, Fontes Lingiiae, Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, Munibe y La Gran Enciclopedia Vasca.

Su bibliografía, amplia y extensa, así como su biografía, ha sido recopilada para este homenaje con cariño filial y esmero por su hijo José Angel. Creemos que es una aportación importante para el mejor conocimiento de temas del País y de la propia obra de este autor navarro.

A la convocatoria cerrada de este libro-homenaje a D. Aingeru lrigaray realizada por la Sociedad de Estudios Vascos han contestado con importantes colaboraciones científicas en los campos de los Aspectos humanos, Recuerdos y vivencias del homenajeado, Lingüística, Sociolingüística, Toponimia y onomástica, Literatura, Historia y Etnografía treinta y tres investigadores, que ofrecen la mayor parte de sus trabajos relacionados con Navarra. A ellos nuestro agradecimiento más sentido. Agradecimiento-homenaje que queremos rendir a través de ellos a nuestro gran amigo D. Aingeru Irigaray Irigaray y a su familia, modelo de amor a la investigación y al País.

En nombre de la Sociedad de Estudios Vascos, Mila esker Aingeru!

**Edorta Kortadi Olano**

Idazkari Nagusia